LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESA EDO LANTOKIETAKO PREBENTZIO-ORDEZKARIAK GAITZEKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKO EDO PRIBATUENTZAKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAREN OINARRI OROKORRAK EZARTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA.	INFORME DE LEGALIDAD SOBRE EL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE ESTABLECEN LAS BASES GENERALES DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LAS ENTIDADES PÚBLICAS O PRIVADAS QUE IMPARTAN FORMACIÓN DE NIVEL BÁSICO PARA LA CAPACITACIÓN DE LOS DELEGADOS Y DELEGADAS DE PREVENCIÓN DE LAS EMPRESAS O CENTROS DE TRABAJO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.
LGAKZ – 2026/6 LT DNCG_DEC_7229/25_03	6/2026 IL- DDLCN
I. SARRERA	I. INTRODUCCIÓN
Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak aipatutako dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko legezkotasun-txostena egiteko eskatu du. Txosten horrekin batera, espedientea izapidetzeko beharrezkoak diren hainbat dokumentu erantsi ditu.	El Departamento de Economía, Trabajo y Empleo ha solicitado la emisión del preceptivo informe de legalidad en relación con el Proyecto de Decreto de referencia, al que se adjuntan diversos documentos necesarios para la tramitación del expediente.
Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoak Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 artikuluan xedatutakoaren arabera egin da. Horrekin lotzen dira Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikulua eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 14.1.c) artikulua.	El presente informe se emite en virtud de lo dispuesto en el artículo 5.1 de la Ley 7/2016 de 2 de junio, de Ordenación del Servicios Jurídico del Gobierno Vasco; en relación con el artículo 11. 1 del Decreto 144/2017 de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, y del artículo 14. 1 c) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.
Txostenaren xede den dekretu-proiektua ez dago Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatu beharrekoen artean, ez baitago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen (EABJL) 3. artikuluan aurreikusitako kasuen artean. Horregatik, aipatutako Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoak Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 artikuluaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu	Se considera que el Proyecto de Decreto objeto de informe no está incluido entre los que deben ser consultados a la Comisión Jurídica Asesora, por cuanto que no nos encontramos ante ninguno de los supuestos previstos en el artículo 3 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi (LCJAE). Por ello, el citado art. 5.1 de la Ley 7/2016 de 2 de junio, de Ordenación del

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

Juridiko Nagusiari kontsulta egin behar zaio, horrela egin behar baita Eusko Jaurlaritzak ematen dituen erregelamendu-xedapenen proiektuetan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena ematea ez dagokionean.	Servicios Jurídico del Gobierno Vasco obliga a que el Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco sea consultado en los proyectos de disposiciones reglamentarias que se dicten por el Gobierno Vasco cuando no corresponda emitir dictamen a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.
Kasu honetan, xedapen orokor bat da, EAEko enpresetako edo lantokiko prebentzio-ordezkariak gaitzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten erakunde publiko edo pribatuentzako dirulaguntzen programaren oinarri orokorrak arautzen dituena.	En este caso, se trata de una disposición de carácter general, que regula las bases generales del programa de subvenciones destinadas a las entidades públicas o privadas que impartan formación de Nivel Básico para la capacitación de los Delegados y Delegadas de Prevención de las empresas o Centros de Trabajo de la CAPV.
II. XEDEA	II. OBJETO
Dekretu-proiektuaren xedea da, batetik, Osalanek prestakuntza emateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen egiaztagiria lortzeko aurretiazko prozedura arautzea, eta, bestetik, prestakuntza hori ematen duten erakunde publiko edo pribatuentzako dirulaguntzen araubidearen oinarri arautzaileak ezartzea.	El objeto del proyecto de decreto es, por un lado, la regulación del procedimiento previo para obtener la acreditación emitida por Osalan del cumplimiento de los requisitos exigidos para la impartición de formación obtener acreditación emitida por Osalan del cumplimiento de los requisitos exigidos para la impartición de formación, y, por otro lado, establecer las bases reguladoras del régimen de subvenciones destinadas a las entidades públicas o privadas que impartan dicha formación.
Dekretu-proiektu hau izapidetzeko arrazoia Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen eskakizunarekiko egokitzapena da. Lege hori 2023ko abenduaren 30ean sartu zen indarrean, eta indarraldi mugagabeko oinarri arautzaileen egokitzapena arautzen duen azken xedapenetako lehenengoan, 1. puntuan, honako hau ezartzen du: "Indarraldi mugagabeko laguntzak eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak lege honetan xedatutakora egokitu beharko dira hogeita lau hilabete, lege hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta egokitzapen hori gauzatu ez bada,	La razón para tramitar este proyecto de decreto es la adecuación a la exigencia de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, que entró en vigor el día 30 de diciembre de 2023, en su Disposición Final Primera, que regula la adaptación de las bases reguladoras de vigencia indefinida, en su punto 1, establece que "Las bases reguladoras de ayudas y subvenciones de vigencia indefinida deberán adaptarse a lo dispuesto en la presente ley en el plazo de veinticuatro meses a contar desde la entrada en vigor de esta, transcurrido el cual, sin haberse materializado dicha

indargabetutzat joko dira ". Beraz, egokitzapen hori emateko beharrezkoa zen aurreko araudia ordeztea: 125/2018 Dekretua, uztailaren 30ekoa, EAEko enpresa edo lantokietako prebentzio-ordezkariak gaitzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten erakunde publiko edo pribatuentzako dirulaguntzen programaren oinarri orokorrak ezartzen dituena (149. zenbakiko EHAA, 2018ko abuztuaren 3koa).	adaptación, habrán de entenderse derogadas". Por tanto, era precisa esa sustitución de la normativa anterior, el Decreto 125/2018, de 30 de julio, por el que se establecen las bases generales del programa de subvenciones destinadas a las entidades públicas o privadas que impartan formación de Nivel Básico para la capacitación de los Delegados y Delegadas de Prevención de las empresas o Centros de Trabajo de la CAPV (BOPV nº 149, de 3 de agosto de 2018).
III. ESKUMENA ETA ARAU-MAILA	III. COMPETENCIA Y RANGO NORMATIVO
Konstituzioaren 149.1.7 artikuluak Estatuari esleitzen dio lan-arloko legediaren gaineko eskumen esklusiboa, eta Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoaren 12. Artikuluak, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio hura betearazteko eskumena.	La Constitución, en su artículo 149.7ª, atribuye al Estado la competencia exclusiva sobre la legislación laboral, y la Ley Orgánica 3/1979, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 12, la competencia de su ejecución.
Era berean, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikuluak Eusko Jaurlaritzari ematen dio erregelamenduak egiteko ahala. Eta, zehazki, 26.3 artikuluak Eusko Jaurlaritza antolatzen den sail bakoitzeko titularrek ahalmena izango dute bere sailari dagozkion gaiei buruzko dekretuak Jaurlaritzari proposatzeko, honek onar ditzan.	Asimismo, la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, en su artículo 16, atribuye al Gobierno Vasco la potestad reglamentaria. Y, en concreto, el artículo 26.3, habilita a las personas titulares de cada Departamento en que se organiza el Gobierno Vasco, la facultad de proponer al Gobierno, para su aprobación, Decretos sobre las materias que les son propias.
Erregelamendu-eskumen hori esleitu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretura jo dugu. Dekretu horren 7.1.e) artikuluan Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari ezartzen zaio lan-harremanen arloko lan-legeria betearazteko eskumena. Bestalde, 7.2) artikuluan, berriz, esaten da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari	Una vez atribuida dicha competencia reglamentaria, acudimos al Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, el cual establece en su artículo 7.1.e), que al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo le corresponde la competencia referida a la Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales y, en su

atxikita dagoela.	artículo 7.2), que Osalan- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales /Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, está adscrito al Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.
Aurrekoarekin batera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak, bere artikuluetan, proiektu hau egitea justifikatzen duten eskuduntzak jasotzen ditu: 12. Artikuluan, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetzarentzat xedatutakoaren arabera eta, haren mende dagoen Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzarentzat, 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.	Junto a lo anterior, el Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, contempla en su articulado las atribuciones que justifican la elaboración del presente proyecto, a la luz de lo dispuesto en el artículo 12 para la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social y, dependiente de esta, para la Dirección de Trabajo y Seguridad Social en su artículo 13.
Era berean, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egiturari buruzko azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak, bere artikuluetan, dekretu-proiektu hau egitea justifikatzen duten eskumen-eskuduntzak jasotzen ditu, eta, zehazki, sailburuari honako hau esleitzen dion 3.1 artikulua:	Así mismo, el Decreto 323/2024, de 5 de noviembre, de estructura del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo, contempla en su articulado las atribuciones competenciales que justifican la elaboración de este proyecto de Decreto; y, en concreto, el artículo 3.1 que atribuye al Consejero:
- Jaurlaritzari proposatzea, onets ditzan, bere sailari dagozkion gaiei buruzko dekretuak. Hori lotu behar da OSALANen sorrerari buruzko abenduaren 21eko 7/1993 Legearen 7.h) artikuluarekin, zeinaren arabera, Kontseilu Nagusiaren eginkizunak dira Lan eta Gizarte Segurantza Sailari eta Osasun Sailari proposamenak eta eskaerak aurkeztea.	-Proponer al Gobierno, para su aprobación, Decretos sobre las materias propias de su Departamento, en relación con el artículo 7.h) de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de OSALAN, que establece como funciones de su Consejo General, la de elevar propuestas y peticiones al Departamento de Trabajo y Seguridad Social y al Departamento de Sanidad.
Beraz, aztertu beharreko araua eskumen-banaketarekin bat dator.	Por tanto, se ajusta a la distribución competencial la norma objeto de análisis.
Lerrunari dagokionez, Dekretu gisa, zuzena da esleitzen zaiona; izan ere, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretua, EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak gaitzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten erakunde publiko edo pribatuentzako dirulaguntzen programaren oinarri orokorrak ezartzen	En cuanto al rango, como Decreto, es correcto el que se le atribuye dado que se trata de la sustitución, por derogación, del Decreto 125/2018, de 30 de julio, por el que se establecen las bases generales del programa de subvenciones destinadas a las entidades públicas o privadas que impartan formación de Nivel Básico para la

dituena, indargabetzearen bidez ordeztu behar da.	capacitación de los Delegados y Delegadas de Prevención de las empresas o Centros de Trabajo de la CAPV.
IV. PRESTATZEKO PROZEDURA	IV. PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN
Prestatzeko prozedurari dagokionez, adierazi behar da dekretu-zirriborroa helarazten zaigula, honako dokumentazio honekin: - Hasteko agindua. - Onartzeko agindua. - Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria. - Emakunderen genero-eraginari buruzko txostena. - Sailaren genero-eraginari buruzko txostena. - Hizkuntza-normalizazioari buruzko txostena. - Sailaren txosten juridikoa. - Dekretuaren zirriborroa.	En cuanto al procedimiento de elaboración, hay que señalar que se nos traslada el borrador de decreto con la siguiente documentación: - Orden de inicio. - Orden de aprobación. - Memoria de análisis de impacto normativo. - Informe de impacto de género de Emakunde. - Informe de impacto de género del Departamento. - Informe de normalización lingüística. - Informe jurídico departamental. - Borrador de decreto.
Bada, arau-testu hori presazko prozeduraren bidez izapidetzen ari da, eta horren berri eman digute.	Pues bien, este texto normativo se está tramitando por el procedimiento de urgencia, así se nos ha dado traslado.
Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean (aurrerantzean, XOEPL) aurreikusitakoa aplikatuko zaio arau honen izapidetzeari, lege horren 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Eta, era berean, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.	Es de aplicación a la tramitación de esta norma lo previsto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (en adelante LPEDCG), de conformidad con lo previsto en el artículo 2.1 de la misma y, asimismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 9. 2 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.
XOEPLn xedatutakoari jarraiki, zehazki 6.4 artikuluari, hasteko agindua onartzeko eskumena duen organoak presazkotzat jo behar du berariaz hala dagokienean. Kasu honetan, Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak.	Atendiendo a lo dispuesto en la LPEDCG, en concreto al artículo 6. 4 de la misma, se debe declarar la urgencia por el órgano competente para aprobar la Orden de inicio. En este caso, el Consejero de Economía, Trabajo y Empleo.
Tramitagunean dagoen espedientean ez dago jasota presazko berariazko adierazpen hori.	No consta en el expediente que obra en Tramitagune la citada declaración de urgencia.

Ondorioz, izapidetzeko presa ez da ez deklaratu ez justifikatu, eta XOEPLen 6.2 artikuluan aurreikusitakoa urratu da.	En consecuencia, la urgencia en la tramitación no ha sido ni declarada ni justificada, vulnerando lo previsto en el artículo 6.2 de la LPEDCG.
Komeni da gogoraraztea XOEPLren 7.1.a) artikuluaren arabera, prozedura deuseztatzeko arrazoia izan daitekeela presazko prozeduraren bidezko izapidetzea, presakotasuna arrazoitu ez denean.	Conviene recordar que el artículo 7. 1 a) de la LPEDCG contempla, como causa de nulidad en el procedimiento, la tramitación por el procedimiento de urgencia cuando no se ha motivado la urgencia.
Bestalde, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren arau-eraginaren azterketari buruzko memoriak adierazten duenaren arabera, ez da sindikatuei entzuteko izapiderik egin, horiek onartu nahi den araudiaren hartzaile izan daitezkeen arren.	Por otro lado, según lo que señala la Memoria de análisis de impacto normativo de la Directora de Trabajo y Seguridad Social se prescinde del trámite de audiencia a las organizaciones sindicales, pese a que son potenciales destinatarios de la normativa que se pretende aprobar.
Horretarako, alde batetik, saila XOEPLren 11.4 artikuluan babesten da eta, bestetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.4 artikuluaren bigarren paragrafoan.	Para ello se amparan, por un lado, en el artículo 11.4 de la LPEDCG, y por otro en el artículo 133. 4, segundo párrafo, de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Bada, 39/2015 Legearen 133.4 artikuluaren bigarren paragrafoak, presako izapidetzearen kasuan aplikatu beharreko legegintza- edo erregelamendu-ekimena erregulatzen duen araudira igortzen du. Hau da, gure kasuan, jada aipatutako XOEPLra. Eta, beraz, inguruabar horrengatiko izapidearen presari eta balizko salbuespenari dagokienez, gure araudi autonomikoan aurreikusitakoari jarraitu behar diogu.	Pues bien, el artículo 133.4 párrafo segundo de la Ley 39/2015, hace una remisión a la normativa reguladora de la iniciativa legislativa o reglamentaria aplicable en el caso de la tramitación de urgencia, en nuestro caso a la ya citada LPEDCG. Por tanto, en cuanto a la urgencia y la eventual excepción del trámite por esta circunstancia debemos atenernos a lo previsto en nuestra normativa autonómica.
Horri dagokionez, XOEPLen 11.4 artikuluaren aurreikuspenari dagokionez, honako hau dio:	Al respecto, en cuanto a la previsión del artículo 11.4 de la LPEDCG, el mismo señala lo siguiente:
"4. – Testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onartu ondorengo prozedura arauemailearen instrukzio-fasean entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak artikulu honetan jasotako herritarren parte-hartzearen eskakizuna bete dezake, eta hori jasota gera daiteke	*"4.– El trámite de audiencia e información públicas en la fase de instrucción del procedimiento normativo posterior a la aprobación con carácter previo de un texto jurídico normativo puede satisfacer, dejando constancia de ello en las memorias, la exigencia de participación*

memorietan."	*ciudadana contemplada en el presente artículo."*
Bada, hain zuzen ere, dokumentazioaren artean dagoen hasteko aginduan, bete beharreko txostenak eta izapideak aipatzen dira, eta honela dio:	Pues bien, efectivamente, en la Orden de incio que consta entre la documentación, se hace mención a los informes y trámites a los que debe someterse, dice así:
"Arau-testuak honako txosten eta izapide hauek bete beharko ditu, eta aldi berean bideratuko dira, hilabeteko epean, aldez aurreko onarpen-agindua argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita:	*"El texto normativo, deberá someterse a los siguientes informes y trámites, que serán sustanciados de modo simultáneo, en el plazo de un mes, desde la fecha de publicación de la Orden de aprobación previa:*
- Entzunaldi publikoaren izapidea eremu soziolaboralean ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalei egingo zaie, hau da, Eusko Langileen Alkartasunari (ELA), Comisiones Obreras de Euskadiri (CC.OO.), Langile Abertzale Batzordeak (LAB) eta Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT), sindikatuen aldetik, bai eta indarreko legeriaren arabera halakotzat har daitezkeen beste erakunde batzuk ere. "	*- El trámite de audiencia pública se realizará a través de la consulta a las organizaciones sindicales más representativas en el ámbito sociolaboral, esto es, a Eusko Langileen Alkartasuna (ELA), Comisiones Obreras de Euskadi (CC.OO.), Langile Abertzale Batzordeak (LAB) y Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT), por la parte sindical, así como a aquellas otras organizaciones que pudieran tener esta consideración según la legislación vigente."*
Hasteko, agindu horretan ezarritako epea igarota, onartzeko agindua eman zenetik, ez dago jasota erakunde sindikalei entzunaldi publikoaren izapidea eman zaienik.	Pasado el plazo establecido en la citada Orden de inicio, desde la Orden de aprobación, no consta que se haya procedido a dar trámite de audiencia pública a las organizaciones sindicales.
Gogoratu behar da 7.1.d) artikuluaren arabera, entzunaldi publikoa ez betetzea prozedura deuseztatzeko arrazoi izan daitekeela.	Hay que recordar que de conformidad con el artículo 7. 1 d) puede ser causa de nulidad del procedimiento el incumplimiento de la audiencia pública.
Entzunaldiari, jendaurreko informazioari eta negoziazio kolektiboari dagokienez, gogora ekarri behar da XOEPLren 17.6 artikuluan aurreikusitakoa, zeinaren arabera entzunaldi publikoa arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta hari buruzko ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izan dezaten egin beharko den.	Al respecto de la audiencia, información pública y negociación colectiva, no está de más recordar lo previsto en el artículo 17. 6 de la LPEDCG, en el sentido de que la audiencia pública deberá realizarse de forma tal que los potenciales destinatarios de la norma, y quienes realicen aportaciones sobre ella, tengan la posibilidad de emitir su opinión formada.

Kasu honetan, jakina, testu arauemailean dauden erreferentziengatik [2 b), 5 b) eta 9.2] sindikatuak arauaren hartzaile dira.	En este caso, evidentemente, por las referencias que hay en el texto normativo [art. 2 b), 5 b) y 9.2], las organizaciones sindicales son destinatarias de la norma.
Era berean, aipatu behar da 17. artikuluko 4. puntua, zeinak adierazten baituen entzunaldi publikoa alde batera utzi ahal izango dela hori justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak daudenean, eta arrazoi horiek behar bezala arrazoitu beharko direla.	Igualmente hay que hacer mención al punto 4 del citado artículo 17, que señala que únicamente se puede prescindir de la audiencia pública cuando concurran razones graves de interés público que lo justifiquen y que deberán ser sufientemente motivadas.
Adierazi den bezala, eskura jarritako dokumentazioan ez dago jendaurreko entzunaldia alde batera uzteko justifikaziorik.	Como ya se ha manifestado, no consta en la documentación puesta a disposición una justificación que motive prescindir de la audiencia pública.
Zirriborro honekin batera doan dokumentazioan ere ez da ageri hasiera-aginduak aipatzen duen memoria ekonomikoa, 1. artikuluko IV. puntuan prozedura aztertzerakoan aipatzen duena. Izan ere, XOEPLen 13.1 d) eta 15.3 d) artikuluen arabera, arauaren aplikazioak ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina aztertu behar da.	Tampoco consta en la documentación que acompaña a este borrador la memoria económica, a la que hace alusión la Orden de inicio al analizar, en el artículo 1, punto IV, el procedimiento, considerando que de conformidad con los artículos 13.1 d) y 15.3 d) de la LPEDCG se debe analizar el impacto económico y presupuestario que conllevará la aplicación de la norma.
V. DEKRETU-PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO GOGOETAK	V. CONSIDERACIONES SOBRE EL CONTENIDO DEL PROYECTO DE DECRETO
Txosten honen xedea ez da dekretu-proiektuaren artikulu guztien edukia aipatzea. Nabarmendu eta aipatzeko modukoak diren alderdiak baino ez dira aipatuko. Kontuan izan behar da, gainera, aztertutako testuak aurreko araudia ordezten duela, 125/2018 Dekretua hain zuzen, lehen aipatua, eta bi arauen edukia oso antzekoa dela.	No es objeto de este informe hacer referencia al contenido de todos los artículos del proyecto de Decreto, únicamente se hará referencia aspectos que destaquen y que sean dignos de mención. Hay que tener en cuenta, además, que el texto analizado viene a sustituir la normativa anterior, el Decreto 125/2018, citado previamente y el contenido de ambas normas es muy similar.
Hori horrela, I. kapituluak dirulaguntzen programaren oinarri komunak jasotzen ditu. I. kapitulu horretan desagertu egiten da aurreko dekretuaren 4. artikuluak datu pertsonalen babesari buruz egiten zuen	Siendo eso así, el Capítulo I contiene las Bases Comunes del programa de subvenciones. En dicho Capítulo I desaparece la referencia que realizaba el artículo 4 del anterior Decreto respecto a

aipamena. Komenigarria dirudi aipamen hori kentzea, ez baita beharrezkoa aipamen hori arau-testuan datuak babesteko agertzen den araudia aplikatu dadin.	la protección de datos de carácter personal. Parece conveniente la supresión de dicha referencia ya que no es preciso para la aplicación de la normativa de protección de datos que figure en el texto normativo.
II. kapituluan prestakuntza emango duten erakundeak egiaztatzeko oinarri arautzaileak arautzen dira. Kapitulu horretan, erakundeetako irakasleei buruzkoa da 5. artikulua, eta artikulu horren d) letrak aurreikusten du euskarako C1 mailako titulazioa eskatzea prestakuntza euskaraz egiten den kasuetarako. Aurreko Dekretuak ez zuen beharrezko euskara-maila zehazten, eta, beraz, egungo testua zehatzagoa da horri dagokionez, eta segurtasun juridikoa ematen du.	En el Capítulo II se regulan las Bases reguladoras para la acreditación de las entidades que impartirán la formación. En dicho capítulo, el artículo 5 se refiere al personal docente de las entidades, la letra d) de dicho artículo contempla la exigencia de titulación de nivel C1 de euskera para el caso de que la formación se realice en euskera. El Decreto anterior no concretaba el nivel exigible de euskera, con lo que el texto actual es más concreto en ese aspecto y aporta seguridad jurídica.
Era berean, 5. artikulu horrek, d) 3 letran, berdintasunari buruzko berariazko prestakuntza duten irakasleak izatearen egiaztapena gehitzen du. Era berean, e) letra gehitu da, erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta indarkeria matxistaren, LGTBI eskubideen eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezari buruzko legeria betetzeari buruzkoa.	Asimismo, el citado artículo 5 añade, en la letra d) 3º, la acreditación de disponer de personal docente con formación específica en igualdad. Asimismo, se incorpora la letra e) que hace referencia al cumplimiento por las entidades de la legislación en materia de igualdad entre mujeres y hombres y contra la violencia machista, derechos LGTBI y no discriminación por razón del origen étnico o racial.
Horri dagokionez, erreferentzia horiek bat datoz Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoarekin.	A ese respecto, dichas referencias se ajustan a lo previsto en el artículo 7. 3 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.
II. kapituluaren barruan, prestakuntza emango duten erakundeek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko ebazpena arautzen du 7. artikuluak. Artikulu horren 6. puntuak akreditazioaren errebokazioa eta horretarako arrazoiak arautzen ditu. Aipatzekoa da arrazoi berri bat aurreikusten duela: irregulartasun nabarmenak egotea prestakuntzaren kudeaketan edo irakaskuntzan. Zalantzarik gabe, laguntza horien kudeaketan metatutako	Dentro del propio Capítulo II, el artículo 7 regula la resolución de acreditación del cumplimiento de requisitos de la entidades que impartirán la formación. El punto 6 de dicho artículo regula la revocación de la acreditación y los motivos para la misma. Cabe destacar que incorpora un nuevo motivo que es la existencia de irregularidades manifiestas en la gestión o en la impartición de la formación. Sin duda, la experiencia acumulada en la gestión de

esperientziaren ondorioz, akreditazioa ezeztatzeko arrazoi berri hori txertatu da.	estas ayudas ha llevado a incorporar este nuevo motivo de revocación de la acreditación.
III. kapituluak dirulaguntza emateko oinarriak arautzen ditu, eta 8. artikuluak deialdiak eta baliabide ekonomikoak arautzen ditu. Artikulu horrek laguntzen urteko deialdia baldintzatzen du aurrekontu-kreditu nahikoa egotera, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.4.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.	El capítulo III regula las bases para la concesión de la subvención. Así, su artículo 8 regula las convocatorias y recursos económicos, y dicho artículo condiciona la convocatoria anual de ayudas a la existencia de crédito presupuestario suficiente, en coherencia con lo previsto en el artículo 8. 4 b) de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.
Adierazitakoarekin bat etorriz, 8. artikulu horren 4. paragrafoak arautzen du funtsak agortzen badira deialdia itxi egingo dela.	En coherencia con lo señalado, el apartado 4 de dicho artículo 8 regula que, en caso de agotamiento de los fondos, se cerrará la convocatoria.
III. kapitulu berean, 9.8 artikuluan jasotako aurreikuspena nabarmentzen da. Artikulu horrek prestakuntzaren ezaugarriak eta moduluak arautzen ditu, eta 8. paragrafoak arautzen du prestakuntza lanaldiaren barruan eman beharko dela edo, bestela, eskainitako denbora lan-denboratzat hartuko dela, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 19.2 eta 37.2 artikuluen arabera.	En el mismo Capítulo III destaca la previsión contenida en el artículo 9.8. Dicho artículo regula las características y módulos de la formación, siendo así, que el apartado 8 regula que la formación deberá impartirse dentro de la jornada laboral o, de no ser así, el tiempo dedicado se considerará tiempo de trabajo. Ello, de conformidad con los artículos 19.2 y 37.2 de la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales.
Bestalde, 10. artikuluak dirulaguntza emateko baldintzak arautzen ditu; haren 5. atalak, berriz, dirulaguntzarik jaso ezin dutenak arautzen ditu. Ildo horretan, aurreko dekretuak aurreko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean (38/2003 Legea) aurreikusitako inguruabarrei buruz egiten zuen aipamena ordezten du, eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua aipatzen du.	Por otro lado, el artículo 10 regula los requisitos para la concesión de la subvención, donde el apartado 5 regula quienes no pueden obtener subvención. En dicho sentido, sustituye la referencia que realizaba el anterior Decreto a las circunstancias previstas en la anterior Ley General de Subvenciones, Ley 38/2003, haciendo mención al artículo 13 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.
Erakunde onuradunen betebeharrei dagokienez (15. artikulua), eta ez-betetzeei, erantzukizunei eta itzulketei dagokienez (16. artikulua), Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea	En cuanto a las obligaciones de las entidades beneficiarias, artículo 15, y a los incumplimientos, responsabilidades y reintegro, artículo 16, se hace referencia a la Ley 20/2023, de 21 de diciembre,

aipatzen da, aurreko legeak aipatzen zuen idazkeraren aldean.	Reguladora del Régimen de Subvenciones, frente a la redacción anterior que refería la ley anterior.
Ikusi dugunez, arau honek uztailaren 30eko 125/2018 Dekretua ordezten du, eta, ondorioz, xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu egiten du dekretu hori.	Como hemos visto esta norma viene a sustituir al Decreto 125/2018, de 30 de julio, en consecuencia, la Disposición derogatoria única deroga dicho Decreto.
Azken Xedapen Bakarrari dagokionez, xedapen horrek, alde batetik, Dekretua indarrean sartzea arautzen du, eta, beste alde batetik, prestakuntza emango duten erakundeei berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoaren eskakizuna indarrean jartzea atzeratzen du (5.d) 3 artikulua), 2029ko urtarrilaren 1era arte. Aurreikuspen hori arrazoizkoa da, epe zabala ematen baitie erakundeei eskakizun hori bete ahal izateko.	En cuanto a la Disposición Final Única, la misma regula, por un lado, la entrada en vigor del Decreto y, por otro lado, pospone la entrada en vigor de la exigencia a las entidades que vayan a impartir la formación respecto a la formación específica en igualdad del artículo 5. d) 3º hasta el 1 de enero de 2029. Dicha previsión se antoja razonable ya que concede un periodo amplio a las entidades para poder cumplir dicha exigencia.
VI. ONDORIOA.	VI. CONCLUSIÓN.
Horregatik guztiagatik, uste dugu txosten honen xede den dekretu-proiektuak gabeziak dituela izapidetzeari dagokionez. Gabezia horiek konpon daitezke izapidetze-fase honetan eta, horiek konponduta, bere edukiak legearen araberakoak dira.	Por todo lo antedicho consideramos que el Proyecto de Decreto objeto del presente informe, adolece de carencias en cuanto a su tramitación. Carencias que son subsanables en esta fase de la tramitación, y que siendo subsanadas, el contenido del mismo se ajusta a la legalidad.
Txosten hau ematen dut, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut, Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.	Este es el informe que emito y que someto a cualquier otro mejor fundado en derecho, en Vitoria-Gasteiz a la fecha de la firma electrónica.